

Gaztetxeak Euskal Herrian. Okupazio-mugimenduaren hedapena

Laburpena: *Okupazioak «eduki» kontzeptua zalantzan jartzen du eta, ekintza zuzenaren bitartez, ezarritako hirigintza-sistemaren aurka borrokatzen du. Euskal Herrian, 1975. urtetik gaztetxeak eta gune autogestionatuak sortzen ari dira.*

Abstract: *Occupations call the verb "to have" into question, while they fight against the established urban planning system through direct action. Since 1985, several «gaztetxe»s and self-managed spaces have been created in the Basque Country.*



Iñigo Galdeano Pérez

Arkitekturaren Oinarrietan graduatua

Gako-hitzak: Gaztetxea, Okupazioa, Legedia, Kultura

Kew words: Gaztetxea, Occupation, Law, Culture

Jasotze data: 2015-11-18 / Onartze data: 2015-12-28

«Birtualki ezin da bizi zerbait eduki barik. Beraz, zergatik edukitzeak arazo bat sortzen du? Edukitzearen historia linguistikoak hitz hori arazo bat dela ohartzen du. Agian, edukitzea gizakiaren existentziaren ezaugarririk naturalena dela sinesten dutenak, hizkuntza askotan "eduki" esanahia duen hitzik ez existitzeak harrিতa uzten ditu. Adibidez, hebreeraz "nik daukat" modu zeharkakoan adierazi behar da, —jesh li— (nireztat da)» (Fromm, 2002: 15).

Okupazioak «eduki» kontzeptua zalantzan jartzen du. Euskal Herrian, Europako beste herrialdeekin batera, 80ko hamarkadatik gaztetxeak eta gune autogestionatuak sortzen ari dira. Okupazioaren ekintza oinarritzat hartuz. Gaur egun, lurralde osoan zehar mugimenduak hedatzen jarraitzen du, kultura alternatibo baten alde. Egungo kulturaren kontzeptuarekin talka eginez.

«Agian, ez da oso apartekoa egiten duten deus ere, eta aldi berean, apartekoa da egiten duten guztia: bide berri bat asmatzen ari dira, diseinatutako bide amaigabeetatik aldendua. Eta hori asko da, ondorioak aparte utziak» (Caparrós, 2003: 52).

«Eduki», propietate edo jabetza pribatuaren kontzeptuak berrikusi behar dira, luxuak diren bitartean, okupazioa eskubidea izango delako.

«Propietatea lapurreta da (...) Lapurretaren ideia, berea ez den gauza bat ezkutatzeko, hartzen, distraitzen duen gizon baten ideia da (...) Propietatea gizon batek propietate sozial baten jabetza absolutua edukitzeko eskubidea da» (Proudhon, 1840: 5).

Kortxoenea

Iraillean, gazteek, Kortxoenea eraisteko saiakerari erantzuteko, Donostia 2016 Europako Kultur Hiri-burutzako egoitza sinbolikoki okupatu zuten. Egoitzan, «Kapitalaren Donostia»ren alde daudenei proiektu autogestionatuen aldeko aldarri hau zabaldu zieten;

«Antzintatik datorren guda baten bataila bat libratzen ari gara. Kapitalak bizitzari deklaratu dion gudaren azkeneko bataila. (...) Dirua pilatzean oinarritzen den Kapitalaren Donostiak gure Autogestioaren Donostiari espazioak desjabetu eta eraitsi dizkio, espekulazioan, turismo basati eta mugagabea eta merkantilizatutako kulturaren oinarrituta, eliteentzako Kapitalaren Donostia eraiki, eta nazioarteko merkatuetan saldu ahal izateko.

Honezkerok ikasiak gara hirien merkantilizazio guda, miseria eta naturaren txikizioa besterik ekartzen ez digun sistemaren lehengai nagusi bihurtu dutela eta horregatik, gaur, hemen, ozen aldarrikatuko dugu, mundu honen kontra egiteko biderik zuzenena haien Kapitalaren Donostiaren aurka borrokatzea dela, eta horretarako, Autogestioaren Donostia eraikiz, herritarrona den Kortxoenea defendatzera etorri gara.

(...) Kapitalaren Donostiaren alde ari zareten guztiei argi esaten dizuegu. Zuen espekulazioaren, turistifikazioaren eta kultura-merkantilizatuaren aurrean, autogestioan, feminismoan, elkatasunean, eta askatasunean oinarritzen den Donostia eraikitzen jarraituko dugu. Kultura ez da merkantzia!».

Hilabete eta erdian eraikina eraisten saiatu zirenetik, asanbladak egitarau kultural oparoaz gain, erresistentzia-txandak antolatu zituen. Hau da, gaztetxean 24 orduz jendea zegoen.



Irudiak ~ Kukutza III gaztetxea.
Egilea ~ Alberto Varela

Azaroaren 3ko txandan gaztetxean hiru kide zeuden eta 7:15etan aurpegiak estalita, metalezko zilindroak eskuan eta oihuka, dozena bat pertsona sartu ziren gaztetxean. «Denak kanpora! Denak kanpora! Ez ukitu ezer!» garrasika eta identifikatu gabe. Minutu gutxian kolpe eta bultzakada artean, hiru kideak kanpora atera zituzten haien ondasunak eta arropak hartzen laga barik.

Horrela hasi zen Euskal Herriko azken aterarazte ilegala, Kapitalaren Hiriak emandako azken urratsa. Baina, beste bataila besterik ez da eta eraispenarekin Kortxoenea ez da amaitzen. Hau da, «okupazioa ez da azken xedea, proiektu baten eraikuntzarako baliabidea da» (Costa, 2004: 118).

Kortxoenea proiektu bat da eta eraitsitako eraikina hormigoi armatuzko kontainerra zen. Edukia eta edukiontzia. Hots, Kortxoenea bakarra dago. Berriz, Kapitalaren Hirian kontainer huts ugari daude. Kortxoeneko kide batek Topatu-ko elkarrizketa batean dioen moduan, «badakigu hau ez dela hemen amaitzen eta ilusioz jarraitzen dugu. Hiria herritarrentzat, Kortxoenea bizirik».

Auzoko gazteek Indianoene kaleko kortxo- eta txapa-fabrika zaharritua berreskuratu zuten, egungo Donostia elitistaren mugetatik at dagoen eremu aske bat eraikitzeko asmoz. Haien esanetan «bere lege, jende eta kultura propioarekin». Hots, «bere orden propioa (des-ordena), non ez baita existitzen pertsonalaren eta politikoaren arteko banaketarik, non bi ardatz baitaude, gezurrik barik, kontraesanik barik (...) non teoria eta praktika eskutik baitoaz» (Costa, 2004: 119). Okupazio-egunetik, eraikin horrek ekimen ugari jaso ditu: antzerki, bertso-saio, kontzertu, hitzaldi, poesia-errezitaldi,

tailer eta proiektu zerrenda luze bat. Adibidez, Donostiaren Festibal Alternatiboa.

Kortxoenean bezala, Euskal Herrian 1970eko hamarkadaren amaieratik asko izan dira sortutako gazte-asanbladak, gaztetxeak eta gune autogestionatuak. Halaber, asko izan dira jasandako eraso eta zapalkuntzak, okupazio horiek kapitalismoan oinarritutako hirien oasiak direlako, «bere lege, jende eta kultura propioarekin». Okupazioek jabetza pribatua eta «eduki» kontzeptua zalantzan jartzen dituztelako, kapitalaren oinarriak zalantzan jartzen dituztelako. Egungo abagunearen baitan, okupazioak ekintza zuzenaren bitartez, zentzugabeko hirigintzaren aurka borrokatzen du. Gaur, inoiz baino gehiago, okupazioa aukera zilegia ez ezik, ezinbesteko tresna ere da.

Gaztetxearen jatorria

Colin Ward-en esanetan: «Okupazioa munduko edukitze motarik zaharrena da, eta guztiak okupatzaileen ondorengoak gara».

Hots, okupazioa beste baten jabetza den etxe, eraikuntza, lurralde eta beste ezelako eremu eskuratzeari deritzo. Beraz, lurraldeen eta hirien konkistak kontuan hartzen baldin badira, okupazioaren jatorria sumaezina da. Gainera, nahiz eta historian zehar eta munduaren puntu desberdinetan okupazio ugariak egon, historia eta kultura lokaletatik sortzen eta antolatzen ohi dira, eta ez nazioarteko erreferenteetatik. Alegia, historikoki ez da existitu okupazioen arteko komunikaziorik, eta okupazio bakoitza bere inguruko ase gabeko beharretatik sortzen ohi da. Okupazio bat, mundu bat.

Horrexegatik, sailkatzeko bide asko daude. Adibidez, lurraldeari begira bi okupazio mota bereizten dira: okupazio landatarra eta okupazio hiritarra. Alde batetik, Kolonbian, Txilen edo Brasilen indigenen eta laborari pobreen landen hartzea eta, beste aldetik, Bigarren Mundu Gerraren itzuleran milaka militar ingelesak etxebizitzak okupazioa.

Berriz, Europako hiritar okupazioan, konkretuki ZSOA (Zentro Sozial Okupatu eta Autogestionatua) deitutako zentroetan kasu berezi bat suertatu da. Azken lau hamarkadetan okupazio-mugimenduaren nazioarteko hedapenerako beharrezko komunikazio minimoa sortu da.

Mugimendua Ingalaterran sortu arren, gauzatutako okupazioak ez ziren gaztetxearen aurrekariak izan; Ingalaterran, familia pobreek udalen etxebizitzak okupatzen zituzten eta negoziatzeko erakundeak ez ezik, kooperatibak ere sortuz joan ziren. Italian, berriz, protagonistak gazteak ziren, eta okupatutako eraikinak etxebizitzak beharrezko zentro sozialak ziren, non ekintza politiko kulturalak egiten baitziren. Legaltasunarekin sortutako arazoek alderdi aurrerakoiak estutasunean jarri zituzten.

Holandan eta Alemanian mugimendua antzera hedatu zen, eta beste herrialde batzuetan hedatu arren, Suitzan edo Danimarkan adibidez, herrialde horietan ez dago okupazioaren inguruko ikerketarik.

Beraz, ezin da esan Ingalaterrako okupazioak gaztetxearen aurrekariak direnik, familiak izateagatik eta lortutako negoziaketagatik. Berriz, Alemanian, Italian eta Holandan gazteek bultzatutako kultura antikapitalistagatik eta enfrontamenduagatik, Euskal Herrian hiru herri horiek erreferenteak izan dira. Batez ere Italiako langileria errotak eta Alemanian jasandako errepresioa.

Euskal Herrian 1975. urtean Txantrean Auzotegi Kultur Etxea okupatu zen, 1977. urtean Bilbon OJEn eraikina okupatu zen, 1980. urtean Lakabe herria, 1982. urtean Belabaratz baserria Orereta ondoan, 1984. urtean Ategorrietako etxebizitzak eta Arditurriren hobiak Oiartzunen, eta, azkenik, 1986. urtean Euskal Herriko okupazioaren boira izan zen.

Lehenengo bi etapak

Hazkunde espekulatiboa eta krisi orokorra. 80ko hamarkadaren bigarren erdia eta 90eko hamarkadaren lehenengo erdia. Gaztetxeen sorrerak bultzatu zituzten egoerak hurrengoak izan ziren: alde batetik, gazteen langabezia eta egoitzaren falta; eta bestetik, alde zaharren birgaitze-prozesuetan eta auzo langileen berregituraketetan sortutako espazio fantasmagorikoak eta sozialki baztertuak. Bultzatzaile horietatik haratago, gaztetxeen hedapenerako testuinguruko erlazio hauek topa daitezke:

- 1870. urtetik biolentziarik gabeko okupazioak ez ziren delituak, eta 1973. urtetik 1995. urtera legeriak tipifikazio berdina mantendu zuen. Berriz, deitutako «demokraziaren legeak», 1996. urtean, gazteen dinamikak zapaltzen saiatu ziren; insumisioa eta okupazioa.
- Mugimendua ez zen ezerezetik jaiotzen. Egoitzen eta ekipamendu publikoen hobekuntzak ez ezik, autogestioaren erreminta ere herritarren eta mugimendu sozialen aldarrikapenak ziren.
- Okupazio bati beste okupazio bat zetorkion atzetik. Gainera, okupazioaren mugimenduak inguruko mugimenduekin erlazio estuak zeuzkan, irrati libreak, kolektibo feministak, artistak eta abar.
- Legearen erantzun motelek eta prozesu judizial luzeek okupazioak errazten zituzten. Beraz, laugarren boterearen erasoak etengabekoak ziren. Dena den, nahiz eta mugimendua karikatuzatzen, aterarazteak ez ziren bortitzegiak eta okupatzaileen irudi publikoa ez zen komunikabideek plazaratu nahi zutena. ABC egunkarian 1994. urtean: «Gazte zakarrak, langabetuak eta delitugile aktiboak (...) deserrotuen horda txikiak, zeinek besteen ondasunak suntsitzen eta inbaditzen baitituzte. Sozietate hondatuaren lagin bat dira, batez ere, autoritate publikoa puskatzeagatik».

Hirugarren etapa

Heltzea. 1995. urtetik 2000. urtera. Etapa honen

karakteristika nagusiak kriminalizazioa eta zapalkuntza izan ziren. Egoera horrek okupazio-mugimendua antolarazi zuen, eta erantzunak gero eta egonkorragoak izan ziren. Lehenengo bi etapetan bezala, hedapenerako testuinguruko lau erlazio hauek topa daitezke:

- Sozialdemokraten eta kontserbadoreen artean ez zegoen gestioen desberdintasunik.
- Zigor juridikoak beranduegi aplikatu ziren, 1996. urtean, eta aplikatzean mugimenduak indarra zeukan.
- Intsumisioak eta okupazioak txandakatzen ziren, beraz, urte haietan komunikabideetako atake guztiak intsumisioaren mugimenduaren kontra joan ziren.
- Herri-mugimendu guztien artean sortutako sareak okupazioari babesa ematen zion.

Armadaren profesionalizazioak beste mota bateko taktikak gauzatzera behartu zuen mugimendu antimilitarista, eta egoera horri esker okupazioaren penalizazioa beranduegi aplikatzeaz gain komunikabideek antimilitarismoa etsai berriztat bat hartu zuten. Horrek guztiak okupazioaren mugimenduari mezua gizarteratzeko denbora eman zion.

1996. urteko legedia 1985. urtetik aplikatu izan balitz, okupazioaren mugimenduak ez zukeen izango daukan arrakasta. Europarekin konparatuta ezberdintasun nagusia eraikinen legalizazio eza izan zen.

Gaur egun

Gaur egun, globalki eta egoera lokaletik at, mugimenduak aurrean dauzkan aldaketarako erronkak bi dira: bata, mapa politiko ezegonkorra, eta, bestea, teknologia berrien gorakada.

- Alde batetik, kontraesankorra iruditu arren, legalizazio eza abantaila izan da mugimendua ez zatikatzeko. Beste herrialdeetan eraikinen legalizazioak mugimenduari desakordio eta desadostasun handiak ekarri dizkiolako. Ikusita Euskal Jaian, Kukutzan eta Kortxoenean gertatutakoa, dirudenez zapalkuntzak eta erlazioak gero eta gogorragoak izango dira.

- Berriz, egungo mapa politikoan administrazioarekin erlazio berriak sor daitezke. Antza denez, 2000. urtetik hona bai Euskal Herrian, bai Espainiako estatuan, alderdi ezkertiarrek hizketarako prest daude. Oraindik, elkarrizketak eta lortutako akordioak lokalak izan arren, herri edo auzo mailakoak, eskuin-ındarrak boterean jarraitzen duelako, aurretik jakin ezin den etorkizun politiko baten aurrean gaude.
- Beste aldetik, krisialdiagatik mugimendua komunikabideetatik desagertu egin da. Atakeen etenaldi hori eta teknologia berrien gorakada mugimenduari globalki antolatze denbora ematen ari zaizkio. Adibidez, Euskal Herriko gaztetxe eta gazte-asanbladen gida autogestio-mugimenduarentzat tresna izateko asmoz sortu da, dauden proiektuak bistartzeko eta eskaintza alternatiboa antolatzen laguntzeko.

Gaur egun, okupazioaren mugimendua aukera paregabe baten aurrean dago; krisialdiak, mapa politiko ezegonkorrak, atakeen etenaldiak eta teknologia berriek mugimenduari, bai lokalki bai globalki, indartzeko eta antolatze ahalbide guztiak eskaintzen dizkiote.

«ZSOAek fikziozko politika alde batera utzi dute, proiektu egonkorren ingurua eraiki dute, eta topikoz edo estereotipoz leku definizioz bihurtu dira (...) Soberan daude arrazoiak pentsatzeko, aterarazte eta egoera konkretuen gainetik, betirako heldu direla» (Rivero eta Abasolo, 2010: 97).

///

Bibliografia

- Fromm, E (2002): *¿Tener o ser?*, FCE España, Madril.
- Caparrós, M (2003): *Amor y anarquía - La vida urgente de Soledad Rosas, 1974 - 1998*, Planeta, Bartzelona.
- Proudhon, PJ (1840): *¿Qué es la propiedad?*, Clasicos-economía, Madril.
- Costa, M.C (2004): «Okupas, culturas de contestación», *Estudios de Juventud*, 64, 117-121.
- Rivero, J eta Abasolo, O (2010): «La okupación como transformación del estado presente de las cosas», *Papeles de relaciones eco-sociales y cambio global*, 111, 97.